

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

#### **Data ezartzea hirugarren perituen zerrenden zozketa publikorako**

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergenaren, 129.3 artikuluan, abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretuaren, Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Araudia onartzen duenaren, 34.5 artikuluan eta azaroaren 29ko 74/2006 Foru Dekretuaren, Jaraunspen eta dohaintzen gaineko zergaren Araudia onartzen duenaren, 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki da 2019ko otsailaren 26ko 13:00etan, Ogasunaren eraikineko liburutegian (Samaniego kalea, 14, bosgarren solairua, Vitoria-Gasteiz), jendaurreko zozketa egitea. Horrela, balioztatu beharreko ondareen edo eskubideen arabera prestatu diren zerrenda bakoitzean, legez onartutako profesionalen elkargoek igorri dituztenez, hirugarren peritu lanetan jarduteko elkargokide edo bazkidea hautatuko da. Zozketa eta gero egingo da izendapena, hurrenkeraren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 12a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**